

Ezpalak

Jon Torner

J. L. Davant saritu du Nabarralde

"IBILBIDE ABERATSEKO GIZONA DA, idazle oparoa, kulturaren jantzia inor baino hobeki. Aurtengo honekin aitortza saio luze bati hasiera eman nahi dio Nabarralde, gure hurbilean lanean kementsu ari direnak txalotuz, ahaleginak ezagutzera emanez. Davant baino hoberik ez da sari hauei hastapena emateko: historian jakitun, euskaltzain oso, idazle aberats, irakasle, kultur munduan arduratsu...". Nabarralde elkarteak kideen hitzak dira horiek. Aurrenekoz banatu dute Nabarralde Saria. Abenduaren 3an jasoko du saria Jean Louis Davant idazle zuberotarrak, Getarian egingo den ekitaldian.

Alberdaniaren liburu elektronikoak

ABENDUAREN 4TIK AURRERA, Alberdania argitaletxeak 35 liburu elektroniko jarriko ditu salgai www.alberdania.net eta www.leer-e.es webguneetan. Horietako 22 Alberdaniaren funtsetik hartutako lanak dira (hamaika euskaraz eta beste hainbeste gaztelaniaz), eta gainontzekoak aurten argitaratu direnak edota argitaratzear daudenak. EPub eta Mobipocket formatutan salduko dituzte liburuak, eta zenbait kasutan PDF artxiboa ere eskainiko dute. Paperekoak baino %30 merkeago jarriko dituzte salgai.

Komunikazioan sakontzeko obra

CHIMÈRES antzerki taldearen eskutik taularatu dute *Baba zango horiak* obra berezia. Haurrekin komunikazioa lantzea du helburu, eta neska gor-mutur baten eta hizkuntza berria asmatu duen mutiko baten arteko harremana kontatzen du. Antzezlanaren frantsesez estreinatu da jadanik eta euskaraz martxoan ikusi ahal izango da Angeluko mediatekan, POK produkzioak konpainiak lagunduta. Euskarazko itzulpena Txomin Heguyk egin du.

Jose Luis Ramirez argazkilariak 9999 *Egun Iheskorrak* erakusketa paratu du Zarauzko Photomuseum-en. Dekonstrukzio prozesua dute ardatz irudiek, "instalazioen eta bulegoen husketatik, eraikuntzen desmantelamentu progresibotik pasatuz, azken demoliziora iritsi arteko prozesua". Abenduaren 27ra arte izango dira ikusgai.



• **Mila Beldarrain idazleak *Euskonews & Median*:** «Emakume naizen aldetik emakumearen egoera errebindikatzen dut. (...) Ez dut uste gizarteak behar den moduan zaintzen duenik seme-alabak izateko aukera. Ildo horretan hainbat gauza aldatu beharko lirarteke, eta gu geu ere aldatu beharko ginarteke. Emakume izateak nire pentsaera baldintzatzen du. Bizi dudana kontatzen dudako errebindikatzen dut. (...) Irakur nazaten idazten dut. Liburu bat ez dago bukatuta inork irakurtzen ez badu. Eleberriak irakurriak izateko idazten dira. Izan ere, idazlearen eta irakurlearen arteko iritzi-nahasketaren emaitza da eleberria. Bitartean ez da ezer, niretzat ez du zentzurik».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

14. Euskal denda

abenduak 4-8 Durangoko Azoka Plazan

Gure artisautzarekin duzun zita!

www.euskaldenda.info

-GALEUSCA Otzaragileen Topaketa
-Juan Unzueta-ri Omenaldia-
-Erakustaldiak. Umeentzako Tailerrak.
-Erosketa-baleak zozketatuko ditugu, 2.000 euro guztira.
Ordutegia: 11:00-14:30 / 16:30-21
SARRERA: 1,20€